

GIG 32

SATURRARAN HONDARTZA

BALIO INTRINTSEKOA: **2,50**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,50**KALTEBERATASUN-MAILA: **3**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Saturraran hondartza Artibai ibaiaren bokaletik gertu dago eta hondarrezkoa da. Ipar-mendebaldera begira dago, eta erabat hondartza bildua da, ilargi-erdi itxurakoa; hondartzara datozen olatu-trenetara egokituta dago, beraz.

Hego-mendebaldean erreka kanalizatu bat du muga, Mijoa haranetik etorria, harri-lubetazko kai txiki baten mendebaldera itsasoratzen dena. Ipar-ekialdera, substratuaren azaleramendu baten kontra amaitzen da hondartza; hain zuzen, ekialderantz sedimentu-garraioa gertatzea eragozten du azaleramendu horrek. Ondarroako portuko dikeen kokapenak ere eragiten du hondartzaren kokapenean, eta aldarazi egin du haren jatorrizko morfologia eta stock sedimentarioa.

Hondartzako sedimentuaren osagai nagusia kuartzozko hondarra da, eta hurrena, itsas organismoen zatiak (bioklastoak) eta itsaslabarreko arroka-zatiak (litoklastoak). Sedimentu horiek sedimentu-pilaketak dituzte jatorri; hain zuzen ere, hondartzatik gertuko itsas eremuan urpean dauden sedimentu-pilaketak. Olatuen energia disipatzea gertatzen den eremuan, harri-koskorrez osatutako kordioak ageri dira, eta litekeena da harri-koskor horiek erreka dikea egiteko erabili ziren materialak disgregatu eta garraiatzetik iristea hona. Harri-koskorren proportzioa gutxituz doa ipar-ekialderantz, ia bat ere ez egoteraino.

Olatuen indarra eta altuera, baina, asko aldatzen dira urtaroaren arabera (indar handikoak eta ordenatuak izaten dira neguan, eta udan, aldiz, indar gutxiagokoak eta sakabanatuak), eta horrek, marea-bitarteekin batera, urtean zehar hondartzaren profila aldatuz joatea ekartzen du; udaldian, adibidez, handiagoa izaten da sedimentu-pilaketa.

NOLA BERTARATU

N-634 errepidetik autoz joan daiteke hondartzako aparkalekuraino.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.



Saturraran hondartzaren ikuspegi orokorra.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 547823 m / Y= 4796680 m / Alt.= 2 m



Flysch beltzeko azaleramendu batek egiten dio muga Saturraran hondartzari iparraldean.